

MAIATZAK
28

HBko hautagaiek Donostiarako programa aurkeztu zuten. E. KOCH

140 proposamen jaso ditu HBk Donostiako programan

J. ESKISABEL / DONOSTIA

Donostiako Herri Batasunako kandidaturak udal «abertzale eta ezkertiarra» lortzeko 140 proposamen jasotzen dituen programa aurkeztu zuen atzo. Neurri horietatik, etxebizitza, enplegu eta euskara arloetan HBk egiten dituen eskakizunak azpimarratu zituen Joseba Permach zerrendaburuak.

Horrela, etxebizitzaren atalean, datozen lau urteetarako ezohiko plana osatzea proposatzen du. Horren bidez, urtero aurrekontuetatik % 10 —2.000 milioi pezeta inguru (77 milioi libera)— babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko erabiliko litzateke. Bestalde, Plan Orokorra berriro aztertzea eta babes ofizialeko etxebizitzaren politika berria egiteko eskatzen du HBk, prezioak merkatuz eta alokairuak bultzatuz, beste zenbait neurriren artean.

Enpleguari dagokionez, enplegua sortzeaz eta Donostiako garapen sozioekonomikoaz arduratuko den zinegotzi bat jaretzea proposatzen du. Inguruko herriekin batera eskualde maila-

ko Garapen Agentzia martxan jartzea eta plan estrategiko baten osaketa dira beste proposametak batzuk arlo honetan.

Bestalde, euskara eta kultur gaiaren inguruan bereziki kezkatuta dago HB, azken urteotan «espainolizazio prozesua» atzeman baitu. Gaur egun Donostian dauden 40.000 euskalduneri euskaraz bizitzeko modua jarri behar zaiela dio HBk. Halaber, Euskararen Aholku Zerbitzua sortzea eta sentsibilizazio kanpainak bultzatzea proposatzen du.

Horretaz gain, ingurugiro, emakume, gazteria, gizarte, kirol, hezkuntza, trafiko, turismo eta haziendarekin lotutako hainbat neurri jaso ditu HBk bere egitarauan.

Bestalde, Joseba Alvarezek aste honetako gertakizunak salatu zituen, eta Barne Ministerioa «kanpinaurrea egiten hasi» dela esan zuen. Joan den larunbatean HBk Loiolan duen Hontza elkarteko fatxada pinturaz margotu zuten ezezagun batzuek, asteartean sei gazte atxilotu zituen Poliziak eta Intxaurrendoko egoitza miatu.

PPk dio Donostia sustatzeko «lidergoa» eskaintzen duela

DONOSTIA

Jaime Mayor Orejak adierazi duenez, «Donostiako jarduera ekonomikoa sustatzeko lidergoa» eskainiko die PPK donostiarrei. Mayor Oreja PPKo Donostiako alkategaia da eta hauteskunde programaren ildo nagusiak azaldu zituen atzo.

Programa horren helburua protagonismoak baztertu eta «Donostiako ekonomi jarduerako sektore tradizionalak dinamizatzea» dela adierazi zuen Mayor Orejak. Bere ustez, «buzoa janzteko eta zerbitzuak bultzatzeko gai izango den alkatea» be-

har du Donostiak, «herritarren jarduerak eta ekimenak sustatuko dituen bitartekaria».

«Alkate batek», azaldu zuen Mayor Orejak, «hirian sortu duen aberastasunaren arabera neurtu behar du bere legegintzaldiaren arrakasta, ez inauguratu dituen lanen arabera».

Kursaal eta Miramongo parke teknologikoari buruz, Donostiarako funtsezko proiektuak direla esan zuen PPKo hautagai eta buruzagiak eta bere alderdiak bultzatu egingo dituela.

Era berean, Donostiako udalgintza «despolitizatzearen» alde agertu zen Mayor Oreja.

Gorputzaren arkitektura



A U Z M E N D I
D O N O S T I A

Avda. 11

SASTRE
A U Z M E N D I

Bergara, 1